

## Datorren ikasturtean Iruñeko haur eskola bakarrean izango da euskera hizkuntza nagusia

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 23/02/2024

Iruñeko hamazazpi haur eskoletatik bakarrik dauka murgiltze edo D eredua, hau da, duela 35 urteko egoera berean daude haur eskolak.

Iruñeko haur eskoletan euskarazko murgiltze eredua eskaintzen duen zentro bakarra dago hiriburuan, Izartegi haur eskola, Txantrean, eta, beste auzo batzuetan ere du «misto» bat ezarria duten arren gaztelaniazkoak euskarazko jardura batzuekin edo euskarazkoak ingelesezko edukiarekin, eskaintza «oso eskasa» dela uste dute euskararen alorrean lan egiten duten zenbait eragileek.

Egoera honen aurrean Iruñeko Udalak iragarri du egungo eskaintza ez dela aldatuko 2024/2025eko ikasturtean Iruñeko Euskaletarak jakinarazi duenez. Hauek azaldu dutenez «Oposizioan zeudela, EH Bilduk, PSNk, Geroa Baik eta Zurekin Nafarroak jarrera irekia erakutsi zuten, baina udal gobernura iritsita, esan digute hurrengo ikasturtean ez dutela haur eskoletan aldaketarik ezarriko». Erabaki hau artzeko epe eta denbora aitzakiak eman ditu Udalak.

Honek suposatzen du duela 35 urteko egoera berean egotea haur eskolak. Izan ere, Iruñeko hamazazpi haur eskoletatik bakarrik dauka murgiltze edo D eredua. Yolanda Barcinaren garaian bi haur eskola zeuden, eta 2015. urtean Joseba Asironek lau haur eskoletan ezarri zuen murgiltze eredua: Txantrean, Arrotxapean, Donibanen eta Arrosadian. 2019. urtean UPN itzuli zenean udal gobernura poliki-poliki eskaintza txikitzen joan zen murgiltze eredu bakarra ezarri arte.

---

<https://eh.lahaine.org/datorren-ikasturtean-iruneko-haur-eskola>